

IZEN EMATEAK

Gure programetan parte hartzeko interesik baduzu,
informazio gehiago lor dezakezu gurekin harremanetan jarriz:

rbaztanbidasoa@afnasvarra.org

Helbideak:

Koxkontako bidea · 31770 LESAKA

Franzisko Joakin Iriarte kalea, 2 · 31700 ELIZONDO

San Miguel Auzoa, 9 (Osasun Etxea) · 31740 SANTESTEBAN

Tel: 948 452 517 // 636 804 504



Diruz lagunduriko erakundea:



JARDUERAK

2016-2017 IKASTURTEA



HAUR ETA GAZTE GARAPENA

ARRETA GOIZTIARRA 0-6 urte artean

Garapenean nahasteak dituzten edo izan ditzaketen hurrei zuzendutako programa da, garapen hobereana lortzeko helburuarekin. Arreta Goiztiarreko zerbitzua, urritasun edo nahasteek sor dezaketen ondorioak gutxitu edo/eta ezabatzeke orientatua dago. 0-3 adin tartea Nafar Gobernuarekin kontzertatua dago eta dohainekoa da.

GAITASUN akademiko, sozial eta komunikaziokoak

6 urtetatik hasita, derrigorrezko hezkuntza bukatu arteko haur eta gazteei zuzendutako programa da. Adimen urritasuna edo garapenean nahasteren bat duten haur eta gazteei behar gehien dituzten gaitasunetan (akademiko, sozial edo/eta komunikaziokoak) laguntza ematea duela helburu.

AISIALDIA: udalekuak

Adimen urritasuna edo garapenean nahasteren bat duten haur eta gazteei, udako garaian eskaintzen zaien programa da. Honen bidez bertze aukera bat ematen zaie ekimen ludiko eta kulturalen bidez elkartzeko, hauen aisialdi denborari erantzun eta edukia emateko.

FAMILIENTZAKO PROGRAMAK

GURASOEN TALDEA

Familiako kideen gaitasunak hobetzeko eta erlazioak sendotzeko oinarrizko formakuntza bat ematea du helburu; famili bizikidetzaren aberasgarri, sortzailea eta osasuntsua izan dadin. Horretaz gain, babes emozionala eta esperientzia zein kezka elkarbanatzeko arnas gunea eskaintzen zaie familiei.

ANAI-ARREBA TTIKIEN TALDEA

Adimen urritasuna edo garapenean nahasteren bat duten hauren anai-arrebei zuzendutako programa. Bertan, jolas-jardueren bitartez, adimen urritasun edo bertze nahasteen inguruko informazioa aurkezten da. Hala nola, egoera beretsuetan egon daitezkeen bertze anai-arrebekin erlazioan jarriz eta haien kezka azalduz.

INFORMAZIOA eta AHOLKULARITZA

Programa honek, adimen urritasuna duten pertsonen edo/eta familiei eguneroko bizitzan gertatzen zaizkien arazoaren aurrean informatu eta aholkatzea du helburu.

GIZARTERAKO PROGRAMAK

GIZARTE SENSIBILIZAZIOA

IKASTETXEAK

Ikastetxeetan ikasleekin zein irakasleekin desgaitasuna lantzeko jarduerak antolatu eta gauzatu. Programa horrek helburu bikoitza du:

- Ikastetxeko ikasleen eta irakasleen sentsibilizazioa.
- Adimen edo garapen desgaitasuna duten ikastetxeko ikasleen inklusioa beraien inguru naturaletan.

Jarduera ikastetxeko beharren arabera oinarrizko eta antolatuko da.

BERTZEAK/ BESTEAK

Udaletxeek, Erakundeek, Elkarrekin eta bertze motatako ikastetxeek edo kolektiboek gizartearen sentsibilizaziorako programaren inguruko informazioa eskatu ahalko dute jarduera zehatzak antolatu ahal izateko.